

PRENTSA OHARRA

Urola Kosta, 2025eko irailaren 19a

“ZUK KONPONDU, ZUK BERRERABILI” LELOPEAN, EKONOMIA ZIRKULARRA SUSTATZEKO KONPONKETA TAILERRAK ETA BIGARREN ESKUKO AZOKAK ANTOLATU DITUZTE UROLA KOSTAKO BOST HERRITAN

- Zarautzen aurkeztu dute ekimena, Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak, Ion Arozenak, eta Emaus Gizarte Fundazioko zuzendari nagusiak, Aitziber Zubillagak. Aurkezpenean izan da, baita ere, Markel Velez, Darrk arropa markaren sortzailea
- Bost asteren buruan, arropak eta tresna elektrikoak erreparatzen ikasteko tailerrak egingo dituzte herriz herri, Aian, Getarian, Orion, Zarautzen eta Zumaian; eta bigarren eskuko jantzien eta osagarrien merkatuak osatuko du ekimena. Lehenengoa gaur izango da Zarautzen, Udaletxe plazan.
- Ekimenaren helburua herritarrak ekonomia zirkularrera gerturatzea da, kontsumo ohitura iraunkorrak ezagutzera emateko eta berrerabilera sustatzeko. Gainera, ekimen honek tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea ere badu helburu.

Zarautz, irailak 19. Irailaren 19an hasi eta urriaren 17ra bitarte, Urola Kostako Udal Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun Sailak lagunduta, eta Emaus Gizarte Fundazioaren parte-hartzearekin, “Zuk konpondu, zuk berrerabili” sentsibilizazio kanpaina kaleratuko du, herritarren kontsumo ohiturak eredu iraunkorrago eta kontzienteago baterantz gidatzeko helburuarekin, konponketa eta berrerabilera sustatuz. Kanpainaren baitan bi ekimen nabarmenduko dira: bigarren eskuko merkatuak eta konponketa tailerrak.

Ekimen hau aurkezteko bildu dira gaur Zarautzen, ekimenaren lehen egunean, Urola Kostako Udal Elkarteko ordezkariak eta Emaus Gizarte Fundazioko arduradunak. Beraiekin batera egon da Markel Velez, Darrk arropa markaren sortzailea. Denek azpimarratu dute ekimen honen garrantzia, eta herritarrak animatu dituzte Zarautzen, Aian, Getarian, Zumaian eta Orion egingo diren tailer eta azoketan parte hartu dezaten.

Bigarren eskuko merkatuak

Herritar askoren nahiari erantzunez, eta berrerabilera sustatu nahian, jende multzo handia erakartzeko intentzior, bigarren eskuko bost merkatu antolatuko dira Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaian, Emaus Gizarte Fundazioarekin elkarlanean, non jantziak eta osagarriak salgai egongo diren. Merkatu horiek berrerabilitako objektuen balioa ikusarazten dute, eta kontsumo masiboaren alternatiba errealak sustatzen dituzte.

Gainera, azoken inguruan bigarren eskuko objektuak jasotzeko edukiontzia ~~instalatuko~~ jarriko dira, herritarrek erabiltzen ez dituzten jantziak edota bestelakoak bertan laga ditzaten. Ingurumenari laguntzeko modu erraz eta zuzena izango da, beraz.

Konponketa tailerrak: joskintza eta tresna elektrikoak

Azokekin batera doako konponketa-tailerrak egingo dira, jantzi zein tresna elektriko txikiei bigarren bizitza emateko; horiek baitira, konponketei dagokienez, herritarrek gehien eskatzen dituzten bi kategoriak.

Joskintza tailerraren bidez herritarrei aukera eskainiko zaie konponketa edota moldaketa ezberdinak behar dituzten jantziak ekartzeko, beren kabuz konponketak egiten ikas dezaten: prakei baxua hartzea edo botoi bat modu eraginkorrean jostea, besteak beste. Modu horretan, oinarrizko konponketa horiek egiteko autonomia sustatuko da eta gure jantzien bizitza erabilgarria luzatu. Horrez gain, hondakintzat hartzen diren ehun-jantziei bigarren bizitza bat emateko aukera eskainiko da, oihalezko poltsa pertsonalizatuak sortuz, eta era horretan erabilera bakarreko materialak murriztuz.

Tresna elektrikoen tailerretan, berriz, egunerokoan erabiltzen ditugun tresna elektriko txikiak eramateko aukera emango zaie herritarrei, eta hauek konpontzeko modua bilatuko da, jendeak ikasi dezan nola konpontzen diren modu autonomo batean hauei balio berri bat emanaz. Horretarako, erraminta eta materialak izango dituzte eskuragarri.

Tailer horiek tokiko profesional espezializatuak eta Emaus Gizarte Fundazioko langileek emango dituzte, haien lana ikusarazteko eta prestigioa emateko, batetik; eta, bestetik, eskualdean eskuragarri dauden baliabideen ezagutza sustatzeko. Tailerretan zehar, kontsumo arduratsuaren eta konponketaren alde egiten duten saltokiak eta profesionalak identifikatzeko aukera izango dute herritarrek, sentsibilizazio kanpainaz haratago herritarrek praktika horiekin jarrai dezaten egunerokoan.

Ingurumen-inpaktua

Ehungintza industria munduko kutsatzaileen artean dago. Gipuzkoan bakarrik, urtero 4.500-5.000 tona ehun-hondakin inguru sortzen dira, eta, horietatik, %5 baino ez da berreskuratzen berrerabiltzeko. Tresna elektriko-elektronikoen hondakinei (TEEH) dagokienez, herritar bakoitzak urtean 8 kg baino gehiago sortzen dituela kalkulatu da, eta horrek konponketa eta aprobetxamendua sustatzeko premia nabarmentzen du.

“Zuk konpondu, zuk berrerabili” sentsibilizazio kanpaina belaunaldi berrien jarreraren isla ere bada, gero eta konpromiso handiagoa baitu gizarteak planetarekin, bigarren eskuaren aldeko apustu garbia eginez, eta ez bakarrik prezioagatik, baita iraunkortasun eta gustu estetiko hautuagatik ere.

Animatu eta parte hartu Gipuzkoa zirkularrago baten alde indarrak batuz. Izena-eman beharrik ez duzu, gerturatzearekin nahikoa da.

ION AROZENA, Urola Kostako Udal Elkarteko Lehendakaria: *Emaus Gizarte Fundazioaren laguntzarekin Urola Kostan berrerabilpena eta ekonomia zirkularra sustatzeko asmoz, bigarren eskuko merkatuak eta konponketa tailerrak antolatu ditugu. Esfortzu handia eskatu digu baina Urola Kostako herri bakoitzean ekimen sorta prestatu dugu, ingurumenarekiko ardura herri guztietara zabaldu nahi dugulako.*

Ziur gaude Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiaiko herritarrak gai honekin arduratuta daudela, eta guk tresnak eman nahi dizkiegu, erantzukizunez jokatzearrazago izan dadin guztiontzat”.

“Eskaera bat egin nahiko nioke Urola Kostako biztanle orori. 5 ostiral hauetako ekimenetan parte hartzea haratago, ehunkien edukiontzien erabilera egokia egiteko mesedez, eta egoera onargarrian dagoen arropa botatzeko, erabiltzeko moduan dagoena”.

AITZIBER ZUBILLAGA, Emaus Gizarte Fundazioko zuzendari nagusia: *Emaus Gizarte Fundazioak 45 urte beteko ditu aurten. Gure lanaren oinarrian beti egon izan dira bazterkeria egoeran dauden pertsonen akonpainamendua eta ingurumenaren zaintza. Horrekin batera, eta gure misioaren erdigunean jarrita gainera, gizartearen eraldaketa prozesua sustatzen duten ekimenak aktibatzea tokian-tokiko eragile ezberdinekin eta alor ezberdinetan: hezkuntza, ingurumena, kultura, partaidetza, kirola, etb.... Modu horretan, gizarte justuagoa, inklusiboagoa eta iraunkorragoa lortzea dugu xede, betiere sarean lan eginez eta eragile ezberdinekin elkarlanean.*

Urola Kostan urteak daramazkigu lanean. Oraingo honetan ekonomia zirkularra eta partaidetza komunitarioa ardatz dituen ekimena aurkeztera gatoz. Konponketaren, berrerabilpenaren eta kontsumo arduratsuaren alde egitea planetaren mugak errespetatzen dituen eta pertsonak erdigunean jartzen dituen garapen-eredu baten alde egitea da.

MARKEL VELEZ, Zarauzko moda diseinatzailea: *Diseinatzaile moduan, argi daukat moda ez dela bakarrik estilo kontu bat. Moda mezu bat da, eta erantzukizun handi bat ere bai. Sortzen dugun jantzi bakoitzak eragina du: ingurugiroan, pertsonengan eta etorkizunean.*

Gaur egungo moda-industria munduko kutsatzaile handienetakoa da. Baina beste era batean egin daiteke. Material birziklatuak erabiliz, langileen eskubideak errespetatuz, eta arropa iraunkorra sortuz.

“Beraz, nik ere gonbidatzen zaituztet antolatu diren tailerretan parte hartzera, bakoitzak gure aletxoak jartzeko”.

PROGRAMA

- **IRAILAK 19 - Zarautz**
 - Tokia: Udaletxe plaza
 - Ordutegia:
 - 12:00 – 19:00 | Bigarren eskuko azoka
 - 16:00-19:00 | Joskintza tailerra
 - 17:00-19:00 | Tresna elektriko-elektronikoen tailerra
- **IRAILAK 26 – Aia**
 - Tokia: Herriko plaza
 - Ordutegia:
 - 17:00-20:00 | Bigarren eskuko azoka + tailerrak
- **URRIAK 3 – Getaria**
 - Tokia: Herriko plazako frontoia
 - Ordutegia:
 - 17:00-20:00 | Bigarren eskuko azoka + tailerrak
- **URRIAK 10 – Zumaia**
 - Tokia: Eusebio Gurrutxaga plaza
 - Ordutegia
 - 11:00 – 19:00 | Bigarren eskuko azoka
 - 16:00-19:00 | Joskintza tailerra
 - 17:00-19:00 | Tresna elektriko-elektronikoen tailerra
- **URRIAK 17 - Orio**
 - Tokia: Herriko Plaza
 - Ordutegia
 - 11:00 – 19:00 | Bigarren eskuko azoka
 - 16:00-19:00 | Joskintza tailerra
 - 17:00-19:00 | Tresna elektriko-elektronikoen tailerra

Informazio gehiago: komunikazioa@urolakosta.eus / 943 24 96 82 (Garazi Azkue. Komunikazioa)